

TIGen ZERBITZUA EUSKADIN ARAUTZEKO ARAUDI

BERRIAREN OINARRIAK ADOSTU DITUZTE

- **TIGak auto bati lotuta daude; eta ez gidari bati.** Taxilariak (pertsonea fisikoa) baimen bat jasotzen duten bezala, TIGen baimenak ibilgailuen zerbitzua baimentzen dute.

Turismo Ibilgailu Gidaridun baimena duen ibilgailuak bost urtez eman beharko du aipatu zerbitzua, gutxienez, arrazoi teknikoan ondorioz bajaran eman ezean.

- **Aurrekontratazioa:** Gidaridun ibilgailuak alokatzeko zerbitzua eskaintzeko baimena duen ibilgailua baimen horren titular den enpresakoak ez diren pertsonak okupatzen dutenean, aurrez kontratatutako zerbitzu bat dela frogatu beharko dute zirkulatu ahal izateko.

Horretarako, turismo ibilgailu gidaridun bat alokatzeko kontratua **kontratutako zerbitzua hasi aurretik sinatu beharko da. Zerbitzua eskatu eta ordubetera emango da zerbitzua, gutxienez.** Kontratazio hori frogatzeko dokumentazioak ibilgailuaren barruan egon beharko du.

Ondokoak dira ezarritako denbora-erreferentzia horren aldaketa justifikatuko luketen **baldintza bereziak**: larrialdiak, istripuen mutuak, errepideko laguntza, aldaketak aurrez kontratatutako zerbitzu batean..., subrogatzeko aukera aintzat hartuz.

- **Bidaiariak ez jasotzea:** Turismo ibilgailu gidaridun baimena duten ibilgailuek **ezingo dute, inola ere, bide publikoetan zehar zirkulatu bezeroak bilatzeko xedearekin; halaber, ez dute zerbitzua aldeztatik kontratatu ez duten bidaiarien jasotzea ahalbidetuko.**

Turismo Ibilgailu Gidaridunek “okupatua” edo “zerbitzua ematen” egoera argiro agertu beharko dute, “zerbitzurik ez” egoerarengandik bereizteko. Azken horren kasuan, geldituta egon beharko dute beren egoitza edo aparkalekuan, bide publikoetatik kanpo, zerbitzu berri bat hasten duten arte.

Ustekabezko arrazoiak ondorioz, turismo ibilgailu gidaridun baten gidariak autoa bide publikoan aparkatu beharko balu zerbitzuari lotuta ez dauden behar ezberdinei erantzuteko, “zerbitzurik ez” egoera agertzeaz gain, ibilgailu horrek ezingo du beste zerbitzurik eskaini gidariak autora iritsi eta ordu bat igarotzen den arte, aurrekontratazioari dagokionez ezarritako baldintzen betetzea bermatzeko eta inork ez dezan zerbitzu berri bat kontratatu autoa aparkatuta ikusi ostean. Ibilgailu horrek, halaber, bere kokapena adieraz dezaketen bitarteko guztiak itzalita izango ditu, TIB baimena duten ibilgailuen kokapena jakitea ezinezkoa izan dadin.

- **Ohikotasuna:** Turismo Ibilgailu Gidaridun baimena duten ibilgailuak aipatu baimena luzatu duen autonomia erkidegoaren lurraldeari loturiko beharrak asetzea xede duten zerbitzuak eskuarki emateko erabiliko dira.

Beren zerbitzuak baimena eman duen autonomia erkidegotik kanpo ematen ari direnean, dagokion baimena ibilgailuaren barruan eraman beharko dute, aginte-mahaian eta kanpotik ikus daitekeen leku batean, bereizgarri baten bidez identifikatuta daudenean salbu.